

noaua



**Lau usurbildar,
Benasqueko Mendi
Maratoi Handian**

**Sexualitatea eta
pandemia aztergai,
UEU-ren ikastaroan**



**“Izan zinetelako gara”
herri omenaldia
larunbatean**

6. or.

KAFE GARAIA

Jon Irazustabarrena

“Ez naiz futbol jokalaria
kontsideratzen. Atezaintzat
daukat nire burua”

EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu
kirol zaletasuna,
onena emateko
gaitasuna,
ahaleginduz gozatzekoa.
Eta barruan daramazu
euskara ere,
kirola barrutik bizitzeko.

*Euskadi,
aytolana*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!

Beirazko itxitura
seeglass one
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Albisteak iruditan

Usurbilek 650 urte

Irailaren 11 egun esanguratsua dela ezin ukatu AEBra edota Kataluniara begira jartzen bagara. Baina herri honen historian ere bada urtemuga bat. 650 urte bete ziren hilaren 11n Usurbil hiribildu izendatu zutenetik, Villa Belmonte de Usurbil eratu zela 650 urte bete ziren. Gaztelako Enrike II erregeak hiribildu titularekin izendatu zuen 1371. urteko irailaren 11n "Belmonte de Usurbil". Lehen Donostiako lur eremua izan zen.

Belmonte izena galduko zuen gero udalerrriak. Duela 650 urte herrigunea zen Kalezarreko egungo auzo elkarteak Belmonte izena du. Uda hasieran NOAUA!ri eskainitako elkarrizketan aurreratu zuten, Kalezarko historia azalduko duen auzo antzerki ibiltari bat eskaintzekoak dira udazken honetan bertan. Prestatzen hasiak dira.



Herriaren erdigunea zen egungo Kalezar duela 650 urte.

Laburrean

Nabarmen murriztu da intzidentzia

Iragan aste osoan covid19 kasu bakarra detektatu ostean, aste hasiera honetarako 126,82raino murriztua zen koronabirusaren intzidentzia Usurbilen, Osasun Sailaren arabera. Udalerrri honen eremu horian egoten jarraitzen du.

Izen ematea, Orbeldiren helduen ikastaroetan

Euskal dantzak, oinarritzko dantzak, dantza hastapenak eta plaza dantzei lotutako saioak iragarri ditu Orbeldik ikasturte berrirako helduentzat. Izen ematea hilaren 22ra arte, lotura honetan: <https://forms.gle/xUYUZ7A9XeVUUZnHA>

Katekesirako izen ematea online

2. mailatik gorakoek emailaz jasoko dute izen emate orria. 1. mailakoek irailaren 20tik 26ra eman ahalko dute izena bideo-tatik: salbatoreparrokia@gmail.com/943 361 239. Ikasturtea urriaren 15ean abiatuko dute.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Alazne Arruti Bengoetxea

Irailarenak

O hartzerako, urtearen bederatzigarren koskara heldu gara, eta ingurura patxadaz begiratzuz gero, abesti eder batek dioen moduan, munduaren nekea hostoetan suma daitekeela dirudi.

Aurtengo udak, eguzki askorik eskaini ez badigu ere, bero lehorreraren tenperatura aldaketa gogorak eragin ditu. Zenbait zuhaitzei begiratu besterik ez dago iraila gutariko asko bezain zimel, hostoak lehorreraren bakanburuak, hasi dutela jabetzeko. Hala ere, urteak aurrera jarraitzen du, urtaroz urtaroz gure eginbehar eta promesak pilatuz. Eta naturak bien bitartean eta eskerrak, ez du etenik.

Piperrak loretan hasi geroztik iragan da denboratxo bat eta dagoneko, mintzen hasiak dira uda biziki agurtzeko asmoz. Kuia, pepinoa eta tomateak amaitzearen dauden honetan, ez da atsedenik. Pikuak hasi dira gozoki lurrera jausten, bizilagunen arteko marmelada pota eta esker onen trukeak martxan jartzeko beste.

Intxaurrak, izuturik eta autoen gorpilen zanpatze bortitzari ihesi, errepide bazterretan pilatzen hasiak dira, norbaitek tentuz jasoko dituenaren esperantzaz. Eta sagarrondoak, eder eta mardul ari dira nagusitzen, presarik gabe, gainean dituzten sagarren pisua eusteko okertzen hasiak direla-



“Irailak ordea, badu beregan urte hasierak ez duen seriotasun bat”.

**ALAZNE ARRUTI
BENGOETXEA**

**“Irailak, zintzotasuna
pizten du norbere
buruarengan.
Eta gure buruarekin
beste bat egiten
hasteko ordua dela
oihukatzen digu
ozen”**

rik. Iraila, hasiera edo amaiera baten mugarria izan ohi da. Eten une arin baten, lehen pausoa. Bada haurrak eskolara bidali eta lasaitasun bat sentituko duenik. Edo kontrara, lehen egokitzearen beldurrez eta mesfidantzaren, ohi baino urduriagoa sentitzen denik ere. Izango dira, ikaskide eta ingurune berri batera egokitu behar dutenak ere. Lehenengoz, etxetik aldentu eta hor nonbait, ikasle pisuen xarma

ezagutzera doanik. Alokairu berriak, berregitearen dauden beste hainbeste bizikidetzak akordio... erabakien oasi txiki bat da iraila. Oporrek arindu ahal izan duten zamaren hutsuneaz baliatu eta erabaki berriak hartzeko abaguneen itsaso bat.

Baina ez du zertan berritasuna ekarri, egoera berdinean jarraitzeko erabakia hartzea ere uste baino korapilatsuagoa izan baitaiteke askotan.

Irailak ordea, badu beregan urte hasierak ez duen seriotasun bat. Izan ere, nork ez du urte berri baten etorreraren, 12 kanpai-hotzen osteko mozkor eta adorez, helburu berrien zerrendarik osatu. Egun horretan, bada halako akordio isil bat, zeinari esker utzi egin ohi diogun elkarri, egikaritu ez ditugunak aho eta pentsamenduetan hartzen. Inguruko sentimendu uholde eta festak, urte osoa aurretik duguna

goraipatu besterik egiten ez duenez, dena izan ohi da libre.

Baina sentsazio hori, pixkankak higitzen doa. Urtarrilarekin baimena ematen diogu gure buruari gauzak lasai hartzeko. Otsailean, hotzak, ez gaitu askorik mugiarazten oraindik.

Martxotik aurrera ordea, ingurua pizten hasten da, gure ekintzen abiadurarekiko proportzionaltasun ezaz. Eta oharterako udaberriak liluratu egiten gaitu, kanpora begiratzea, sarri barnera biltzea baino erakargarriago izan daitekeelarik.

Eta amaitzeko, udak, ez du azalpenen beharrik. Pentsamenduak lausotu eta loturarik gabe gozatzeko aukera eman ohi diogu elkarri. Kresala arnastu eta eguzkiaren energia erregai eta indar ditugularik.

Baina sugandilen garaia atzean uzteko ordua berehala heltzen da. Eta orduan, berandu da. Agenda berri bat zabaltzeko unea iritsi da ziurrenik. Norbere baitan bizi dugun etxea zartatzen hasten den unea heltzen da. Narrastien antzera, ezkataz lehortzen eta eteten zaizkigu. Eta azal berritzeak, ez du atzera bueltarik izaten.

Irailak, zintzotasuna pizten du norbere buruarengan. Eta gure buruarekin beste bat egiten hasteko ordua dela oihukatzen digu ozen.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Anerrekak bi hitzordu iragarri ditu

Apar txuria eta ur zikinak isurtzen ikus zitezkeen Aranerrekaren punturen batean iragan irailaren 11n, Anerreka Ingurumen Elkarteak ohartarazi zuenez. Bilguneak bi hitzordu deitu ditu datorren hamabostaldirako, hilero sustatu nahi duten dinamikaren baitan.

Hondakinaren karakterizazioa

“Usurbilgo industria eta komertzioetara biltzen den hondakin errefusaren karakterizazio publikoa” egingo duela iragarri du Anerrekak; irailaren 25ean eguerdiko 12:00etan Dema plazan. Zehazkiago esanda, lehengaion edukiontzia baten karakterizazioa egingo dute jendaurrean. “Azken urteotan, Gipuzkoako hainbat herritan eta Donostian, halako lanak egiten eskarmentua hartu duen jende baten laguntza” izango dute. Dagokien lanketa egin ostean, “emaitza publiko egingo da”, iragarri dute.

Helburu argi batekin antolatuta dute hitzordua; Zero Zabor erronka errealtate bilakatu eta



Asteburuan Aranerrek ur zikinen isurketa gehiago izan zela ohartarazi du egunotan Anerreka ingurumen elkarteak.

ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA

“Neurtu dezagun daukagun bilketak ematen digun kalitatea”

beraz, erreusik ez izateko bidean bada zer hobeturi. “Nola hobetu daukagun kudeaketa? Neurtu dezagun daukagun bilketak ematen digun kalitatea. Neurketak erakutsiko digu zertan daukagun hobetu beharra”. Industria eta komertzio alorreko hondakinak hautatu dituzte karakterizazio publikorako; “betidanik errefusa

gehien sortzen duen iturria” baitira. “Guztiaren %60 edo gehiago suposatzen du Usurbilgo kasuan”, ohartarazi du Anerrekak, 2009an atez ateko bilketa sistema martxan dagoenetik, etxean nahiz kale garbiketan sortzen den kopuruen gainetik.

Lurrak herriratzearen onurez

Karakterizazio saio horren aurretik, “herriarentzako lurrak eskuratzearen onura” izeneko saioa programatu du Anerreka ingurumen elkarteak, irailaren 23an 18:30etan Sutegin. Hitzordurako izena, hilaren 21 baino lehen bideratu beharko

da usurbilkultura.eus plataforman.

Andatza inguruetan herri lur anitz du Usurbilek. Oraingoan, Itsasoko esperientzia ezagutze-ko aukera izango da, udalerri hartako alkate, biologo eta botanikari Iñaki Aizpururen eskutik. “Ahal den neurrian”, nekazaritzarako erabiltzen ez diren lurzoruen kudeaketak publiko behar lukeela izan irizten dio.

Illo horretan ari da lanean Itsasondoko Udala. “Partikularrek behar ez zituzten lursailak erosteari ekin zion Itsasondoko udalak, eta gaur egun 100 haren jabe da, batez ere Murumendi aldean”.

2007an bertako natura eza-gutu eta ondarea babesteko hainbat lanen artean hasi zen aipatu erosketak bideratzen, “beti ere baso autoktonoa berreskuratzeko, landa eremua kontserbatzeko eta ibaia eta ibar-basoak babesteko eta berreskuratzeko asmoz”.

Udalerri hartako esperientzia ekarriko du Aizpuruk Aranerrekaren eskutik, irailaren 23an Sutegira.

Ika-mika

Lurraren defentsan

Dagoeneko entzungo zenuten Lapurdin kokatuta dagoen Arbona herrian, lur eremu baten okupazioa egin dutela. Arbonako plazatik bi kilometrorra dagoen 15 hektareako lur sail bat eta bertan dagoen etxebizitza bat 3.200.000 euroren truke saltzekotan dira,

orain arte laborantzarako lurrak izan direnak. Parisen bizi den emakume aberats batek erosi nahi du lur saila eta hau ekiditze aldera, ekainaren 21etik aurrera ELB sindikatuko eta Lurzaindia elkarteak kideek lur eremua okupatu zuten, hau guztia salatu eta erantzun herritar bat emateko.

Ordur geroztik, jende andana pasatu da elkartasuna eta atxikimendua adieraztera okupatutako eremura. Iraila guztian zehar, egunen banaketa bat egin dute eta egunero Ipar Euskal Herriko beste herri bat izango dute bide lagun “Egun bat, Herri bat” dinamikaren bidez. Egutegia edo

informazio gehiago nahi baduzu, Lurzaindiako web orrian aurkitu dezakezu. Gu ere lurraren defentsan gaudela aldarrikatzeko, aukera proposa iruditzen zait bertara hurbildu eta gure elkartasuna adierazteko.

Lontxo Zubiria



Jon Irazustabarrena: “Duela 25 urte kalean pasatzen genuen eguna”

Jon Irazustabarrena Lizarralde atezaina da. 35 urte ditu eta ibilbide oparoa osatu du futbol munduan. Azken denboraldiak Irungo Real Union futbol taldean egin ditu. Atezain izateaz gain, pilota irakaslea eta Zirimarako begiralea da. Elkarriketaren pasarte batzuk jaso ditugu orriotan. Solasaldi osoa gure web orrialdean topatuko duzue, noaua.eus/bereziak/kafe-garaia helbidean.

NOAUA! herri aldizkariak 25 urte bete ditu. Zu non zeunden duela 25 urte?

Jon Irazustabarrena: Duela 25 urte hamar urte edukiko nituen. Eta ikastolan ez bazen, ba kalean egongo nintzen. Orain hemen frontoian ikusten ditugun ume hauek bezalaxe. Kalean pasatzen genuen eguna. Garrantzitsuena hori zen, lagunekin egotea. Kalekumeak esaten dena, ba horixe ginen gu. Kalekumeak.

25 urteotan aldaketa handiak eman dira. Arlo guztietan eman ere. Maila sozialean, eskuko telefonoak plazako petri-leko berriketaldia ordezkatu du. Zuk futbolari gazteagoekin jokatu duzu azken urteotan. Horretaz aparte, pilota irakaslea ere bazara. Hainbestera



“Txikitik kalean pasatzen genuen eguna. Garrantzitsuena hori zen, lagunekin egotea”, Jon Irazustabarrenak aitortu digunez. “Kalekumeak esaten dena, ba horixe ginen gu. Kalekumeak”.

JON IRAZUSTABARRENA

**“Konfinatuta egon
ginenean oso zaila zen
pantaila saihestea.**

**Kalera ateratzeko aukera
izan genuenean ordea,
jendea konturatu zen
beste gauza batzuk ere
badaudela,
pantailaz haratago”**

al da edo akaso esajeratzen ari gara?

Batzuoi aldaketa honek gaztaroran harrapatu gaitu; pantaila-

ren eta sare sozialen garaia... Baina ume batzuk edo nire taldekide batzuk oso txikitatik bizi izan dute hau dena.

Betidanik.

Hori da. Betidanik ezagutu dute. Nik adibidez, ez nuen sare sozialak ondo kudeatzen asmatu eta horregatik kendu egin nituen. Baina taldeko aldagelan adibidez, ikusten dut jendea pantailaren mende bizi dena. Pantailari eta sare sozialei. Hori bai nabaria dela. Eta kalean ere begibistakoa da.

Frontoian, pilota saio bat ematen ari naizenean, inguruan beste bizpahiru daude eskuko telefonoarekin. Eta hori lehen ez zen gertatzen.

Atentzioa deitu behar izan al diezu?

Bakoitzak jakingo du zer egin duen, ezta? Hala ere, konfinatuta egon ginenean oso zaila zen pantaila saihestea. Kalera ateratzeko aukera izan genuenean ordea, jendea konturatu zen beste gauza batzuk ere badaudela, pantailaz haratago.

“Pandemiari esker, umearekin denbora gehiago egoteko aukera izan dut”

NOAUA! Pandemia hasi zenetik urte eta erdi igaro da. Etxean nola eraman duzue pandemiak ekarri duen gutzia?

Jon Irazustabarrena: Etxean, egia esan, oso ondo. Etxearekin egoteko aukera gehiago izan dut. Futbol par-

tidengatik, asteburu asko ez dauzkat libre. Pandemiarekin ordea, umearekin egoteko aukera gehiago izan dut. Zentzu horretan, opari bat izan dela esango nuke. Baina faltan bota dut senideekin edota lagunekin egotea. Asko balora-

tu dut hori; familiakoekin edo lagunekin egoteko denbora. Orain gehiago baloratzen dut hori dena eta uste dut denbora hori gehiago aprobetxatzen dudala une honetan.

Gertukoekin egoteari garran-

tzia handiagoa ematen diozu.

Uste dut oso garrantzitsua dela eta arlo sozial hori beharrezkoa dugula inoiz baino gehiago. Beti izan da beharrezkoa baina lehen igual ez genion horrenbesteko garrantziarik ematen eta orain bai.

“Ez naiz futbol jokalaria kontsideratzen, atezaintzat daukat nire burua”

NOAUA! 2. B Maila berrantolatu egin zen iaz eta Irungo Real Unionek RFEF Lehen Mailara igotzea lortu zuen. Klubaren etorkizunari begira, gakoa izango zen igotzea, ezta?

Jon Irazustabarrena: Azken hiru denboraldiak oso txarrak izan dira. Asko sufritu dugu. Jaisteko arriskua hor egon da azken urteotan. Jokalariontzat eta Real Union klubarentzat pauso handia izan da. Taldea egonkortzeko garrantzitsua izan da maila horretara igotzea.



“Golak sartzen zituenaren sentazioak nik atezain bezala bizitzen nituen. Pilotan ere gustura ibiltzen ginen. Kadete mailara arte, bietan aritu nintzen”.

Pilota eta eskubaloia tradizio handiko kirolak dira Usurbilen. Baita futbola ere. Txikitatik argi izan al zenuen futboleko atezain izan nahi zenuela?

Atezaina, bai. Atentzioa deitzen zidan edota nik atentzioa deitu nahi nuen akaso, atezainaren jokoa ikusgarria delako. Gustuko nuen lurrera botatzea, salto egitea, arropa zikintzea... Golak sartzen zituenaren sentazioak nik atezain bezala bizitzen nituen, eta gustuko nuen. Pilotan ere gustura ibiltzen ginen. Kadete mailara arte, bietan aritu nintzen.

Beraz pilotan eta futboleant, bietan ibili zinen txikitan.

Bai, kadete maila arte eutsi nion. Bi edo hiru partida edukitzen nituen astebururo, futbole-

RFEF LEHEN MAILA

“Asko sufritu dugu azken urteotan.

Jokalariontzat eta Real Unionentzat pauso handia izan da.

Taldea egonkortzeko garrantzitsua izan da maila berrira igotzea”

ko bi eta pilotako beste bi. Ezinezkoa zen horrela jarraitzea eta aukeratu egin behar izan nuen. Nahikoa garbi nuen futboleant jarraitu nahi nuela, baina pilota utzi behar izateak frustrazio pixka bat eragin zidan.

Gure garaian, inork ez zuen atezain jokatu nahi. Atezain izate-

ko joera nondik datorkizu?

Besterik gabe izan zen. Postu berezi bat da. Ez naiz jokalaria kontsideratzen, atezaintzat daukat nire burua. Futboleant postu berezi bat delako. Gure artean ere, kontrarioekin, beti dago harreman berezi bat. Uste dut postu berezi bat dela eta badakigu zer bizi dugun batakin zein besteak.

Sansen eman zenituen lehen urratsak. Eibarrek Lehen Mailan debutatzeko aukera izan zenuen eta Real Unionen ari zara orain. Beasainen eta Lagun Onak-en ere jokatu duzu. Gipuzkoako talde garrantzitsuenetan aritu zarela esan daiteke, ezta?

Bai, Sansen denbora gutxi

egon nintzen, baina Beasainen urte batzuk egin nituen eta Eibarren ere bai. Zortea izan dut inoiz ez naizelako talderik gabe gelditu. Badakit taldekide batzuegatik zer den talderik gabe egotea, klub baten bila ibiltzea, dei baten zain... Eta alde horretatik, zorte izugarria izan dut. Aurrendenboraldi bakoitzeko, hasieratik talde bat eduki dut eta gertuko taldeak tokatu zaizkit beti. Zorte handia da hori ere, Usurbilen bizi izan naizelako beti.

Eibarrek 2. B Mailatik Lehen Mailara igo zinen eta futbolaren elitean debutatu ahal izan zenuen. Pozgarria izateaz gain, betetako amets bat izango zen Lehen Mailan jokatzeko, ezta?

Hala da. 26 urterekin Beasainen nengoen, 3. Mailan. Futbola beste lan batekin partekatu beharko nuela pentsatzen. Gustuko dut futbola eta ahal dudan arte eutsiko diot. Eta 26 urterekin, urtarrean, Eibarretik deitu zidaten. 2. B Mailan zeuden orduan. 26 urterekin 3. Mailatik egotetik, 28rekin Lehen Mailan lehiazera pasanintzen. Pentsa. Ez nuen horrelakorik espero. 19 urterekin ilusio handiagoa duzu baina 26 urterekin iritsi zen aukera. Eta esan duzun moduan, amets bat betetzea izan zen.

“Kirol arloan gauzak nola egiten diren ikusita, uste dut zorte handia daukagula Usurbilen”

NOAUA! Heziketa oso garrantzitsua da, baita kirol jardunean ere. Umeetako kategorietan, zer nolako lana egiten ari dira Usurbilen? Udarregi Ikastolan, Eskola Kirolan edota Usurbil F.T. taldean.

Jon Irazustabarrena: Uste dut asko hazi garela zentzu horretan. Arlo askotan. Lehen kirola egiten genuen konpetitibitate horren bila edo garaipenaren bila. Eta demostratuta dago kirola egunerokotasun batean sartu behar dela eta, batez ere,

hezteko balio duela. Kirola, ezer baino lehen, ondo pasatzeko da. Hortik abiatuta, beste guztia dator gero.

Zentzu horretan, uste dut herri honetan apustu handi bat egiten ari garela, kirola egunerokotasunean sartzeko,

eta kirola ohitura batean bihurtzeko, bakoitzari nahi duen jardura hautatzeko aukera eskainiz.

Kirol arloan gauzak nola egiten diren ikusita, uste dut zorte handia daukagula Usurbilen.

Sexualitatea eta covid19 hizpide, UEU-ren urriko ikastaroan

Argi dio Jon Imanol Etxabe Telleria psikologo eta sexologoak. “Paradigma berri bat bizitzen ari gara harremanen munduan”, covid19ak eragindako pandemiaren harira. Pandemia aurreko, bitarteko eta osteko sexualitatea aztergai izango duen ikastaroa eskainiko du usurbildarrak urrian, Iñaki Dorronsoro Maioz UEUko sexologia sailburuarekin batera, UEU-ren eskutik. Etxabe ikuspegi zientifikotik ariko da, eta Dorronsorok hausnartetara bideratuko du ikastaroa, “pentsatzeko nolakoak ginen pandemia aurretik, nola egon garen pandemian zehar, ze jokabide, pentsamendu izan ditugun. Inoiz ez epaitik, beti ere norbera hobeto eza-gutzeko helburuarekin. Eta bereziki, etorkizunari begira nola ikusten garen”, Etxaberen esanetan.

Foro publikotik at

Pandemiak gabezia eta behar asko azaleratu ditu. “Guztiz bigarren maila batean” geratu dira esaterako, erotika edota desirari lotutako gaiak. Sexualitatea “foro publikotik baztertu izanagatik, dena oso pribatua, ezkutua izan beharreko horretan bilakatu da”. Ez da egon beste alor askotan sarritan aplikatu diren protokolorik, “ez da kontenplatu jendeak behar edo gogo horiek zituenik eta ondorioz alor ilegalera pasa da. Itzaletan izan behar zuen eta kon-



Jon Imanol Etxabe Telleria usurbildarra izango da, “Sexualitatea covid19 aurretik, bitartean eta ondoren” ikastaroko bideratzaileetako bat.

JON ETXABE

“Denok behar erotikoa izan eta ez ditugula ahaztu behar gogorarazi digun alarma modukoa piztu da”

tu handiarekin. Hor norbere beharrak asetzea asko zaildu duten hainbat mekanismo egon dira beldur nahiz legaltasunari lotutakoak”, Etxaberen esanetan.

Eta hor indartu da teknologia berriak baliatzearen eskutik datorren “sexualitatea 3.0”. “Denok behar erotikoa, izan eta ez ditugula ahaztu behar gogorarazi digun alarma modukoa piztu da”, sexologo usurbildarraren esanetan.

Pixkanaka “normaltasunerantz” jorratzen ari garen bide honetan, argi geratzen ari da “kontakturako edo besarkatzeko dugun beharra”, baina “denok ez gaude puntu

horretan”. Sexologoaren esanetan, “koronabirusak aldagai berri bat gehitu du”. Beldur edo zalantzena, batzuei gehiago besteei gutxiago eragiten ari zaiena. “Orain jende asko dago bere desira berbideratzen, edo ez dakiela nola kudeatu egoera zehatz batzuk, osasunaren aldeko beldur hori ere gehitu behar zaio; norekin zauden, txertatuta egongo den edo ez...”.

“Norberaren ongizatearekin zerikusia”

Pandemia aurreko sexualitatea, egungo testuingurukoa eta datorkigun etorkizunari begira izan ditzakegun zalantzen aurrean, “hausnartarako espazioa eskaini nahi dugu”, gai honek ere “norberaren ongizatearekin zerikusia” baduela argi izanda. Urriko asteburuetan eskainiko den ikastarorako matrikulazio epea zabalik duzue irailaren 24ra arte.

Matrikulazio epea zabalik

■ Egunak: urriak 1, 8, 15, 30.
■ Orduategia: ostiralean 17:00-20:00 artean; larunbatetan, 9:30-13:30 artean.

■ Tokia: Potxoenea.

■ Ordu kopurua: 13 (ostiraleko 3 saioak klase formatukoak, larunbateko azkena tailerra).

■ Matrikulazio epea: irailak 24.

■ Irakasleak: Jon Imanol Etxabe Telleria (sexu aholkularia eta psikologoa) eta Iñaki Dorronsoro Maioz (UEUko sexologia sailburua 2018tik).

■ Helburuak:

-Inguruneak sexualitatearengan duen eraginaz hausnartzea.

-Ezkutuko hainbat errealitate azaleratzea.

-Pandemiaren eta itxialdiaren eragina ikustea.

-"Liburuaren Sexologia".

■ Edukiak:

-Sexualitatea pandemiaren aurretik: irakurketa orokorra; erlazionatzeko modua; teknologiaren eragina; erotismo indibiduala.

-Sexualitatea pandemia garaian: Kotimitatea; gaixotasunak ala itxialdiak eragin digu?; ihesa, ebasioa eta konpentsazioa; masturbazioa; pornografia eta erotismoa; 3.0 sexualitatea; legea eta desira.

-Sexualitatea pandemia ondorengo garaian: beldurrak; baliabideak; aurrez landutakoa, nola dago orain?; txertoaren eragina; aurrera begirako proiektzioa.

■ Informazio gehiago: ueu.eus

■ Antolatzaileak: UEU, Udala.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA



ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79



Kima

MASAJE LEKUA



·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

“Lurpean utzi nahi duten egia azaleratzea dagokigu, ahanzturara kondena ez dezagun”

Egia azaleratzeko lanean ari dira. “Gure iruditeria historiko eta kolektiboan, Gernika, Durango, Intxorta, Bilbo eta beste hainbat herriren izenak datozkigu, tropa faxisten erasoaldi basatiez eta bortitzez aritzean, baina gutxi dakigu gure herrian, Usurbilen egun horietan izan ziren gerra fronteek, borrokez, gudariez eta faxistek Usurbil hartu ondorengo egoeraz, errepresioaz, horrek eragindako ondorioez, sufrimenduaz...”. Horretara dator, Usurbil 1936 elkarte Udalarekin batera duela urtebetetik jorratzen ari den bidea. “Lan solteak egin izan dira azken urteetan gai honen inguruan baina dimentsio honetan ez. Lan itzela izan da eta herritarren parte hartzea azpimarratu nahiko nuke”, adierazi zuen Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak, tropa faxistak Usurbilen sartu zirenetik 85 urte beteko diren larunbaterako, irailaren 18rako, antolatu duten “Izan zinetelako gara” ekitaldiaren aste hasierako aurkezpenean.

Usurbil 1936 elkarte eta Udala egiten ari direnaren erakuslelhoa izan nahi du frontoian egingo



“Izan zinetelako gara” irailaren 18ko herri omenaldiaren antolatzaileek aste hasieran Mikel Laboa plazan eginiko agerraldia.

USURBIL 1936

“Lan solteak egin izan dira azken urteetan gai honen inguruan, baina dimentsio honetan ez”

den omenaldiak. “Lehen aldiz, egindakoa herriari erakutsiko zaio”, iragarri dute antolatzaileek. Bolondres askoren ordu askotako auzolana dago irailaren 18ko hitzorduaren prestaketaren atzean. “Inoiz elkartu ez garen jende asko bildu gara, memoria berreskuratzeko”, adierazi zuen

agerraldi berean, Aitor Azurkik, Usurbil 1936 elkarte kideak.

“Gertatutakoa jakitea beharrezkoa da”

“Errepresaliatuak, exiliatuak, torturatuak, kanporatuak edota isilaraziak izan zirenak omenduko dira, bereziki fusilatuak”, iragarri dute antolatzaileek. “Hau guretzat mugari bat da, ez ekitaldi soil bat”, lanketa prozesu zabalago baten testuinguruan kokatu nahi dutena. “Gertatutakoa jakitea beharrezkoa da”, adierazi zuen alkateak, “nondik gatozen jakiteko, erreparatu eta

nagusiki berriz ez gertatzeko bermea delako. Hori da gutxienez ondorengo belaunaldiok egin diezaiekegun omenaldi eta aitortza nagusia. Hain zuzen ere hori da larunbat honetako ekitaldiaren funtsa”.

Iragan mendeko Euskal Herriko “gertaerarik latzenak eta traumatikoenak, bortizki eta iraunkorki markatu baitzuen protagonisten, nahiz ondorengo belaunaldien memoria”, alkatearen esanetan. Horregatik “lurpean utzi nahi duten egia azaleratzea dagokigu, ahanzturara kondena ez dezagun”.

Ezinbestekotzat jo zuten aipatu egia azaleratu eta hurrengo belaunaldiei helaraztea. Herritarrek osatutako memoria kolektiboa eraikitzea alkatearen esanetan, “izan ere jakin badakigu historia beti idazten duela irabazten duenak eta urte askotan zehar herri honetan gertatutako asko kontatu izan da ikuspuntu horretatik”. Horregatik ezinbestekotzat jo zituen beste hainbat herrietan bezala, “Usurbilen egiten ari garen ikerlanaren gisakoak”.

Antolaketa lanetan parte hartzen ari diren bolondresak eskertu zituzten.

“Izan zinetelako gara” herri omenaldia larunbatean

“Ekitaldi oso hunkigarria izango da, balioko du ere ikusteko duela 85 urte zer giro zegoen hemen eta zer bizi zuten”.

Emozioz beterikoa izango da “Usurbil 1936” elkarteak eta Usurbilgo Udalak larunbaterako, tropa faxistak udalerrir honetan sartu zireneko 85. urtemuga egunerako antolatu duten hitzordua.

Fusilatuen senideen parte hartzea

Orain arteko ikerketetan bost fusilatu usurbildarren berri

bazuten; orain beste bi batu zaizkie. Tartean, Euskal Herrian gutxi izan arren, emakumezko fusilatu bat; Romana Zubiria Urruzmendi. Senarrarekin batera erahil zuten. Bere seniderik aurkitu du Usurbil 1936 elkarteak. Baita Jose Herredero Pinedaren familiartekoak ere. “Senideak oso hunkituak eta pozik daude, inoiz ez baitiete omenaldirik egin”.

Senideak, egitasmo honetako partaideak... Hainbat lagun erakarriko ditu hitzorduak. Lekua ahal bezain laster hartzea beraz komenigarriena.

Izena aurrez eman beharko da, irailaren 16a baino lehen, ohi bezala, usurbilkultura.eus plataforman. 110 lagunentzako lekua egongo da. “Aforoa mugatua izango da, beraz jendea ahalik eta lasterren joan dadila apuntatzen”.

Ekitaldian zehar, elkartearen logodun kamisetak ere salgai izango dituzte.

Irailak 18, larunbata

■ 10:00 Mural margoketa: “Usurbil 1936” elkarte lo-goaren margoketa.

■ Ondoren, murala herrian

zintzilikatzea.

■ 18:00 “Izan zinetelako gara” ekitaldia frontoian:

-Hasiera zazpi suzirekin, zazpi fusilatuen omenez.

-Ekitaldia: dantza txistulariekin, musika, mintzaldiak, txalaparta, bertsoak, poesia errezitaldia, lore eskaintza eta oroigarri banaketa fusilatuen senideei.

Izen ematea: usurbilkultura.eus.

Antolatzaileak: “Usurbil 1936” elkarte, Usurbilgo Udala.

“Momentu on eta txarretan elkarri lagundu genion, eta gustura aritu ginen”

Benasqueko Mendi Maratoi Handian parte hartu zuten lau usurbildarrek ekainaren 12an. Ez zuten lan makala egin, eta beren bizi-penak NOAA!rekin partekatu nahi izan dituzte.

NOAUA! Benasqueko mendi maratoi handian parte hartu zenuten ekainean. Nolako emaitza lortu zenuten?

Ekhi Arrieta: Ez dakit zenbat ginen, ia 500 parte hartzaile gutxi gorabehera. Gu erdi parean geratu ginen 270 inguruan. Eneko ehunda hirurogehitara hamar inguruan. Helburua, hala eta guztiz ere, ez zen sailkapeneko lehen postuetan geratzea.

Irakurketa positiboa, beraz.

Zuhaitz Lizaso: Ondo, bai. Gisa honetako maratoi bat egiten nuen lehen aldia nuen nik, eta beraz, bukatzea zen nire helburua, eta lortu nuen. Ez da gutxi. Gutxi gorabehera aurreikusitako denboran egin genuen. Denbora tarte jakin batean egin nahi genuen, eta hori betetzea lortu genuen.

Ekhi Arrieta: 11 ordu azpitik egitea zen gure xedea, eta sekula egin ez genuenez, denbora tarte egokia iruditu zitzaigun. Eneko eta Borjak Tolosako mendi maratoia eginda zeukaten, eta Zuhaitz eta bion kasuan horrelako ezer probatu gabe genuenez, horra helburua. En-



Aurreikusitako denboran osatu zuten Benasqueko Mendi Maratoia. “Denbora tarte jakin batean egin nahi genuen, eta hori betetzea lortu genuen”, azaldu digute lau mendizaleek.

EKHI ARRIETA

“11 ordu azpitik egitea zen gure xedea, eta sekula egin ez genuenez, denbora tarte egokia iruditu zitzaigun. 8 ordu inguruan egin genuen azkenean”

trenamenduak egin genituen denbora tarte horretara moldatu ahal izateko, baina beti ematen du beldurra. 8 ordu in-

guruan egin genuen azkenean. **Borja Pulido:** Nire kasuan, beldurrik bat ere ez neukan. Bane-kien nora nindoan, baina lesio bat izan nuen hilabete eta erdi lehenago, eta ordutik ia korrikarik egin gabe nengoan. Korrikaldian zehar arazo batzuk izan nituen momentu jakin batzuetan, eta uztekoan ere egon nintzen zenbait aldiz, baina azkenean aurrera egin nuen. Helburua beteta.

Eneko Urdangarin: Helburua beteta nik ere, gainontzekoek bezala. Ondo pasa eta gozatzera joan nintzen, amaitzeko helburu hutsarekin.

Altitudearen eragina ere kon-tuan hartu behar da. Guk hemen ez dugu askorik entrenatu altitudetan, eta Pirinioetan arit-zteak hori izaten du. Gustura aritu ginen, eguraldi ona egin zigun, eta hori da garrantzi-tsuena.

“Maratoia denok batera egitea zen ideia”

NOAUA! Laurok hartu zenu-ten parte maratoian, baina bide osoa batera egin zenu-ten?

Borja Pulido: Denok batera egitea zen ideia, eta nahiko bateratsu ibili ginen ibilbi-

de guztian zehar. Ni minez hasi nintzen, eta momentu batzuetan kosta egiten zitzaidan erritmoa jarraitzea, batez ere aldapa behera. Gero, al-dapa gora egiterakoan erritmoa azkartzen nuen gainontzekoen

parera iritsi nahian. Hasieran gainontzekoengandik bereizi nintzen aurea hartuta, baina gero aldapa behera tokatzean harrapatu egiten ninduten.

Ekhi Arrieta: Zuhaitz eta bion kasuan, biok batera egitea zen

asmoa eta halaxe egin genuen, hasi eta buka batera. Momen-tu on eta txarretan elkarri la-gundu genion, eta gustura ari-tu ginen. Aldapa gora Zuhaitz larrixeago ibili zen, eta aldapa behera berriz, ni atzetik.

“Duela lau bat urte hasi ginen txapelketetan parte hartzen”

NOAUA! Mendi maratokiez gain, lasterketen alorrean zenbateko esperientzia duzue?

Eneko Urdangarin: Duela lau bat urte hasi ginen txapelketetan parte hartzen, baina pandemia garai hauetan geldirik egon behar izan dugu. Benasqueko maratokia lehenengo urtean egitekoak ginen, baina bertan behera geratu zen, eta aurten aukera eman digute egiteko. Hemen inguruko txapelketetan aritu gara azken aldian, eta maratokiak izan dira egin ditugun handienak. Hala ere, laburragoak egin ditugu batik bat. Denak mendiko probak egin ditut, bestelako lasterketarik ez dut egin.

Ekhi Arrieta: Laurok talde kirolestatik gatoz, eskubaloia eta futbolekin. Korrika denok ere krosak eginez hasi ginen, Lasarteiko krosa dela, Behobia.. Mendian ni behintzat oso gutxi ibili naiz.

Borja Pulido: Ni Enekorekin batera hasi nintzen laster-



“Inguruko txapelketetan aritu gara azken aldian, eta maratokiak izan dira egin ditugun handienak”.

ZUHAITZ LIZASO

“Mendira deskonektatzera eta burua argitzera joaten naiz”

ketak egiten, distantzia ezberdinetakoak, eta gehienez maratokiak. 15 eta 30 edo 35 kilometro bitarteko probetan hartu dut parte.

Zuhaitz Lizaso: Ni mendira la-

netik deskonektatzera eta burua argitzera joaten naiz. Entrenatzen hasi nintzen pixka bat eta Borjak burua berotu zidalako hasi nintzen urrats gehiago ematen.

“Gogorra izan da fisikoki, baina baita mentalki ere”

NOAUA! Entrenamenduak denok batera egiten dituzue?

Zuhaitz Lizaso: Ahal dugunetan geratzen gara, baina bakoitzak bere bizimodua dauka eta umeak direla, eta lana dela askotan zaila izaten da denok elkartzea. Beraz, bakarrik ere askotan aritzea tokatzen zaigu.

Eneko Urdangarin: Batzuk bizikletan ere ibiltzen gara errepidean, eta hori ere entrenamendu modura uler daiteke.

Ekhi Arrieta: Ni ere ez naiz korrika soilik ibiltzekoa. Gustatzen zaizkigula hartu eta

mugitzea, igeriketa pixka bat egitea, eta bestelakoak. Nik ez dut balio kirol bat hartu eta horretan itsututa aritzeko.

Umetatik duzue kirola gustuko, beraz.

Ekhi Arrieta: Mendiak elkartu gaitu neurri handi batean, denoi gustatzen zaigu eta interes hori komuna dugu. Bestelako planak ere egiten ditugu mendira igotzea esaterako, korrika joan gabe.

Txapelketa gehiagotan parte hartzea aurreikusita dauka-

zue?

Zuhaitz Lizaso: Momentuz atsedenera edo bat hartuko dut nik behintzat. Gogorra izan da fisikoki, baina baita mentalki ere, eta opor batzuk behar ditut. Iraila eta urria ere iritsiko dira, eta orduan ikusiko dugu zer gogo dauzkagun eta helbururik jarri nahi diogun geure buruari.

Ekhi Arrieta: Nik ere atsedenera baten beharra daukat. Ia bi urte pasatu ditut proba honetarako prestatzen, eta presioa sentitzen nuen uneoro entrenatzeko beharagatik. Egia da behin Benasquekoa eginda gogoia dudan

la beste lasterketaren batean parte hartzeko, baina inolako presarik gabe.

Borja Pulido: Nik ez daukat inolako helburu berezirik, baina suertatzen bada hori ere egingo dugu. Momentuz ez daukat horretarako beharrik ere. Mendi berriak eza-gutzeko zerbait egingo dugu, baina momentuz inolako presiorik gabe.

Eneko Urdangarin: Mendira joateari ez diot utzik. Aurten ez daukat bestelako helbururik. Datorren urtean ikusiko dugu ea zer datorren.

Irati Larrañaga: “Oso gustura aritzen naiz korrika, baina nire lehentasuna lesiorik ez izatea da”

Kirolariak pixkanaka euren egunerokotasunera itzultzen ari dira pandemiaren atzaparretatik ihes. Irati Larrañaga mendi lasterketetan ibili ohi da, eta azken hilabeteetan zenbait podiumetan izan da. Fisioterapeuta ere bada, eta bi munduak behar bezala uztartzen ikasi du. NOAUA! berarekin izan da.

NOAUA! Azken aldian lasterketa askotan hartu duzu parte.

Irati Larrañaga: Gustatzen zait herri giroko lasterketetan parte hartzea. Hemen inguruan egiten ditut normalean, baina pandemiaren ondorioz lasterketa gutxi daude, eta ikusi nuen kanpoan lasterketak egiten zizutela Pirinio inguruetan, batez ere. Emakumeen parte hartzea izugarri igo da Katalunian, ia parte hartzaileen erdiak emakumeak izaten dira orain txapelketa batzuetan. Hemen inguruko mendirik altuena Txindoki da, eta han 3000ko mendietan korrika egiteko aukera dago. Altitudea nabaritzen da, ez da berdina Andatzen 20 kilometro egin edo 2000 metroetan egitea. 20 kilometroko lasterketetan altitudea



Berriki lehen postua eskuratu du Irati Larrañagak Faltzesko Pilon Trail eta Idiazabalgo Axari Trail txapelketetan. Hirugarren amaitu zuen Panticosan, Valle de Tena Trail lasterketan.

IRATI LARRAÑAGA

“Duela hiru urte inguru hasi nintzen mendian korrika egiten, baina txikitatik beti lehiatu izan dut”

nabari da; gehiago kostatzen da arnasa hartzea. Ni ondo moldatzen naiz horretara, distantzia laburrak egiten baititut.

Distantzia laburrak diozunean, zenbateko tarteaz ari zara?

Nik egin dudak luzeena 21 kilometrotako lasterketa izan da. Orain dela hiru urte 21 kilometro izugarri iruditzen zitzaidan, Andatzara igo eta jaitsi zazpi aldiz egitea baita, baina egia da mendian kilometroak errazago egiten direla asfaltoan baino. Errepidean denbora guztian korrika egin behar da, eta mendian

berriz, aldapa gora oinez igo eta deskantsatu ere egin daiteke, baita jan ere. Bihotz taupadak ez dira hainbeste igotzen; lasaia igo ibiltzen zara. Mendian distantzia laburrak dira 25 kilometrotik beherakoak, 40 kilometro ingurukoak, 70-168 kilometro arteko ultrak eta 300 kilometroko lasterketak ere badaude. Hiru egun oso korrika aritzea eskatzen du horrek.

“Atletismoa utzi nuenean lehiatzeari muzin egin nion, baina nire kabuz korrika hasi nintzen”

Noiztik egiten dituzu gisa hone-tako lasterketak?

Irati Larrañaga: Duela hiru urte inguru hasi nintzen mendian korrika, baina txikitatik beti lehiatu izan dut. 11 urterekin hasi nintzen atletismoan salto eta altuera jauzia egiten. 22 urte arte hartu nuen parte txapelketetan. Unibertsitate ikasketak Bartzelonan egin nituen, eta han jarraitu nuen entrenatzen. Azken

finean, kirol indibidual bat izateak dakartzan abantailak dira egunerokotasunean entrenatzea. Atletismoa utzi nuenean lehiatzeari muzin egin nion, baina nire kabuz korrika hasi nintzen Zubietako buelta ematen eta gisa horretako gauzeekin. Kasualitatez hasi nintzen mendian korrika, masterreko azterketetan estresatuta ibiltzen nintzen, eta lagun batek mendian korrika

egitearen abantailak azaldu zizkidan kalean ibili baino. Hasieran Andatza justu-justu igotzen nuen, eta pixkanaka kilometroak gehitzen joan nintzen. Konfinamendu garaian Andatzako mila txoko berri ezagutu ditut korrika: negutegiak, dolmenak, trikuharrak, kantera, errotarriak... Gauza pila bat daude Andatzen besterik gabe igo eta jaitsi eginda ia ikusi ere egin ezin direnak. Due-

la hiru urte hasi nintzen mendian lasterketetan. 22 urtetik 25 urte bitarte utzi egin nuen, baina 25ekin berri heldu nion, har berezi hori piztu baitzitzaidan.

Irabazleen podioan ere izan zara sarri. Zenbat domina lortu dituzu?

Hamabost bat podiumetara igo naiz orain arte, eta bost aldiz irabazi dut.

“Andatzak mila txoko ditu, eta egunero bide ezberdinak aurkitzeko aukera ematen du”

Umetatik izan duzu gustoko korrika ibiltzea?

Irati Larrañaga: Ni atletismora kasualitatez iritsi nintzen. Nire etxean ez zekiten zer zen ere. Eskubaloia eta futbola ez zitzaizkidan gustatzen, eta Usurbilen aukera horiek neuzkan nagusiki. Niri mugitzea gustatzen zitzaidan, batez ere. Orduan, Lasarten atletismoko talde bat bazela esan zidaten eta bertan izena eman nuen. Umetan Usurbilen izenean parte hartzen nuen hamaika edo hamabi urterekin. Atletismoan proba asko egiten dira, eta saltoan aritzen nintzen orduan. Dizi-plina horretan ondo moldatzen nintzen. Lehenengo urtean Gipuzkoako txapel-duna izan nintzen, eta garai-pen horrek jarraitzeko gogoa eman zidan.

Atletismoan jende asko eza-gutzen duzu, baina kirol indibiduala da. Dizi-plina izaten erakusten du. Egunero entrenatzen nuen, eta asteburuetan bidaiatu egiten nuen lehiatzeko. Garai hartan oso serio aritzen nintzen kirolean, eta orain, hobby bat da. Egu-



Kirolari izateaz gain, fisioterapeuta da Irati Larrañaga. Lesiorik ez izatea lehentasuntzat jarria du.

IRATI LARRAÑAGA
“Korrika egiteak egunerokotasunetik ateratzeko aukera ematen dit. Nire bizitza estiloaren parte bilakatu da”

nerotasunetik ateratzeko aukera ematen dit korrika egiteak. Zorionez, ondo ibiltzen naiz atletismoak emandako dizi-pli-

na horregatik. Nire bizitza estiloaren parte bilakatu da.

Orain mendian erosoago ibiltzen zara asfaltoan baino?

Berez mendia gehiago gustatzen zait. Andatza oso gustoko dut, eta bertan ez naiz aspertzen. Andatzak mila txoko ditu, eta egunero bide ezberdinak aurkitzeko

aukera ematen du. Jendeak askotan esaten dit Andatza itsusia dela, baina nik bertatik ikusi dut inoizko ilunabarrik politena. Zoragarria iruditzen zait, eta horregatik egunerokotasunean Andatza entrenatzen dut. Oso nekatuta banago eta zerbait laburragoa egin nahi badut, Txokoalde edota Zubietako bidea egiten dut.

“Fisioterapeuta izateak asko lagundu dit”

Fisioterapeuta ere bazaitugu. Kirolari izateak eraman ziotuen alor horretara?

Irati Larrañaga: Ez dakit oso ondo zergatik hasi nintzen fisioterapia ikasten. Asko gustatzen zait anatomia, gorputza zaintzea eta lesioak prebenitzea. Mendi lasterketetan korrika egitearen atzetik lan garrantzitsua dago: prebentzioa. Indarra landu behar da eta horrek izugarrizko garrantzia dauka, nahiz eta askok korrika egitea hutsa bai-

no ez duten lantzen. Aldapa behera egitean muskuluek lan egiten dute eta artikulazioek asko sufritzen dute. Muskulaturak indartsu egon behar du inpaktu horri guztiari eusteko. Beraz, zergatik hartu nuen fisioterapeutaren bidea ez dakit ziur, baina asko lagundu dit nire kirolari ibilbidean, ez baitut sekula lesiorik izan. Jende asko korrika hasten da forman jartzeko. Iruditzen zait lehenago forman jarri behar dela, eta jakin zer egingo duzun. Prebentzio lan

handia dago. Lesioak ez dira kirolean hasi eta berehala sortzen, baizik eta prebentzio lan txarren ondorioz, gerora ateratzen dira. Kontsultan asko ikusten dut hori.

Kontsultan kirolari askorekin topo egiten duzu?

Kaleko kirolari amateur asko ikusten ditut. Nik uste, gaur egun, geroz eta kontzientzia handiagoa dagoela prebentzioan. Kirol zientzien alorrean ikerketa lan handia egiten

ari dira, eta asko lantzen dira gai hauek, baina ahaztu egiten zaigu egunerokoan guztia behar bezala aurrera eramaten. Errazagoa da zapatilak jantzi eta Zubieta aldera korrika egitera joatea. Fisioterapeuta izateak kirolari ibilbidean ere asko lagundu dit. Podium askotara igo naiz, eta oso gustora aritzen naiz korrika, baina nire lehentasuna lesiorik ez izatea da, eta nire burua behar bezala zaintzea, osasuntsu egotea garrantzitsua baita.

Ospitaleetara joateko autobus zerbitzua berrezartzea eskatu dute udal talde guztiek

A dostasun erabatekoa Buruntzaldeko autobus zerbitzuetan indarrean diren murrizketen inguruan. Aho batez onartu zuten uztailearen 20ko udalbatzarrean, gai honi buruzko mozioa. Dakizuenetz, bi linea-tako bat, Usurbil ospitaleekin lotzen zutena ezabatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Uztailearen 1etik indarrean den erabakiak hainbat kexa eragin ditu herrian. Herritar talde batek sinadura bilketa abiatu du udan, linea hau berrezartzea eskatzeko. Udalak ere bere azpiegiturak bilketa kanpaina honetarako utzi ditu; nor bere atxikimendua eman ahal izateko. Sutegin, Potxoenean, udal erregistroan edota Oiardo Kiroldegian jarritako orrietan. Udalak ere kexu da, uztailearen 1ean martxan jarri zen esleipen berriaren inguruan ezer adierazi ez zitzaielako. “Desinformazioak kexak eragin ditu” eta haserrea, uztailearen 20ko udalbatzarrean alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak zioenez.

Irailera begira

Gogoan izan, uztaila erdialderako bildu ziren eskualdeko alkateak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, murrizketek Buruntzaldea osoari eragiten



Usurbil Hernanirekin lotzen duen autobus zerbitzuaren geltokia.

OSPITALEETAKO BUSA
“Ospitaleetako linea irailean berrezartzeko borondatea agertu zioten Udalari Diputaziotik; eskaera aztertzeakotan geratu ziren”

baitiote. Ospitaleetako linea irailaren 1ean berrezartzeko borondatea agertu zioten Udalari Diputaziotik; eskaera aztertzeakotan geratu ziren. “Irtentideak bilatzeko eta egoera konpontzeko gure prestutasuna argia izango da”, zioen

uztailearen 20an aho batez onarturiko mozioak. Are gehiago, ezabatua dagoen linea hau Aginagatik abiatzen zen. Orain berrezarriko balute ere, “harrituko ninduke Aginagatik hastera”, alkateak udalbatzar hartan zioenez. Horregatik, Usurbiletik ospitaleetara joateko zerbitzua berreskuratzeko balitz, “Udala prest egongo da, Aginaga-Usurbil bidea bus taxi zerbitzu batekin osatzeko”. Aukera hau mahai gainean du egun udal gobernu taldeak. Orain ordea, Diputazioak egingo duenaren zain geratu behar.

Bitarte honetan, murrizketa hauen aurkako mozioa onartu zuen aho batez udalbatzak. Argi dio; “bat egiten dugula herritarrek azaldutako kezka eta kexekin, eta ondorioz, gure esku dagoen guztia egingo dugula herritarren eskubideak bermatu daitezen”. Horregatik, “dei egiten diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari, herritarren kexak aintzat hartu eta emakida berrian murriztutako T2-BU2 linea, lehengo baldintza berdinetan berrezar dezan, abiapuntua Usurbilen berrezarritz Lasarte-Orian beharrean”.

Adinekoen auzunearen eraikigarritasunaren handitzea

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuen hirigintza eraikigarritasuna handitzeko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari hasiera ematea onartu zuten uztailearen 20ko osoko bilkuran aho batez. Handitze honi esker auzune berria baliabide gehiagorekin indartu asmo dute. Besteak beste, jar-

duera fisikorako espazioa edota aparkalekuak kokatzea aurreikusten dute.

Zaintza beharrean diren bikoteentzat

Baita bizi osorako etxebizitzak. Bikoteentzat zuzendua, bikote horretako kide bat zaintza beharrean dagoen kasuetara bideratzeko dituztenak. Baliabide berri hau Kalezarren kokatzeko

“aukera ikusten genuen” erabilerak gabeko espazioa baduelako oraindik adinekoen auzune berriak. “Sozialki eta urbanistikoki aitzindaria, berritzailea” izango da Kalezarren eraikitzen ari diren adinekoen auzune berria. Usurbildarrek izango dute lehentasuna bertan. Etxean zaindua izan ezin daitekeena, Kalezarreko auzune berrian etxean bezala sentiaraztea da

erronka; “pertsonek behar eta nahiekin bat datorren” arreta eredu eskaintzea. Egitasmo hau garatzen ari diren unea nabarmendu zuten udal gobernu taldek. Lehendik ere bazen baina covid19ak are ageriagoan utzi duen zaintza ereduari lotutako eztabaida ezin biziagoa dagoen unean dator eta hain zuzen. “Premia eta urgentzia dago gai honi heltzekoa”.

Zapategi eremuko egitasmoa garatzeko bidelagun berria

Elkar eta Gureak lantegiek Michelin ondora, Zapategi eremura ekartzekoak zituzten egoitza nagusiak, baina covid19aren pandemiak eragindako testuinguru sozioekonomiko zailagatik, halabeharrez Elkarrek beste gune bat aurkitu behar izan du. Kolpe gogortzat jotzen zuen, halabeharrez, covid19aren pandemiaren eraginez, Elkarrek hartu behar izan zuen erabakia, bai aipatu lantegiarentzat, “Usurbil eta Gipuzkoarentzat” ere. Ondorioz, “beste irtenbide bat topatzera behartuak” zeudela adierazi zuen Agurtzane Solaberrieta alkateak uztailaren 20ko udalbatzarrean.

Hilabeteotan ordea lanean segitzen dute eta ahaleginak bere emaitza izan du. Batetik Gureak zegoen; Zapategira etortzeko asmoari eusten dio. Ekaina amaieran izandako Administrazio Kontseiluan berretsi zuten erabakia.

Hilabeteotan bestalde, bidelagun berria topatu dute; Balfer izeneko inbertitzailea. Besteak beste, Andoaingo sarreran kokatua dagoen industriagunearen sustatzailea. Zapategi-



Zapategi eremua garatzeko proiekturako bidelagun berria du Udalak; Gureak, eta Elkarren ordez, Balfer inbertitzailea.

BIDELAGUN BERRIA

“Andoaingo sarreran kokatua dagoen industriagunearen sustatzailea da Balfer inbertitzailea”

ko partzela zati bat garatzeaz arduratuko da.

Hitzarmena, iraila amaierako udalbatzarrerara

Udal gobernu taldetik iragarri zuten, asmoa, irailaren 30ean egitekoa duten udalbatzarrerara lau eragileon arteko lankidetzaz

hitzarmena eramatea litzateke. Egitasmo honekin “degradaturiko eremuari hirigintza irtenbidea ematea” ahalbidetuko dela nabarmendu zuten udal gobernu taldetik, 800-900 lanpostu sortzea bultzatzearekin batera.

“Dena jarri dugu gure alde-rik aurrera ateratzeko”, adierazi zuen Agurtzane Solaberrieta alkateak, urte hasieran EAJ-k eginiko adierazpenei erantzunez. Udal gobernu taldearen kudeaketa desegokiaren ondorioa izan zela baitzioten jeltzaleek, Elkarrek Zapategiko proiektutik irteteko hartutako erabakia.

13 eskabide, hilobien esleipen deialdian

Hilerriko 27 hilobi esleitzeko deialdia plazaratu zuen Usurbilgo Udalak udaberrian. Baina 13 eskabide aurkeztu direnez, 13 hilobiren erabilera eskubidea 50 urterako esleitzea erabaki zuen udalbatzak aho batez, uztailako osoko bilkuran.

Ordezkaritza aldaketa

Udaberrian udal gobernu taldean izandako zinegotzi aldaketak UEMA-n eta Euskal Fondon Udalak zuen ordezkartza aldatzea eragin du. Udal barruan, alkatetzaren esku geratu da Parekidetasun eta Aniztasun Batzorde Informatzailearen ardura. Arloak “beste zentralitate bat” izango duela zioen alkateak, uztailako udalbatzarrean.

Hitzarmen berria

Gipuzkoako gainerako udalerrien antzera, Usurbilgoak ere informatika zerbitzuak jasotzen segitzeko IZFE SA-rekin sinatu beharreko hitzarmena berritzea erabaki zuen aho batez uztailaren 20ko udalbatzarrean.

Udal aurrekontuen exekuzioa, martxoan

Diru sarreretan exekuzio maila %57koa izatera heldu da, gastuena %36koa. “Ondo goaz momentuz” zioen udal kontuhartzaileak uztailaren 20ko udalbatzarrean. Gastuen exekuzioa nabarmen hazi liteke hilabeteotan, Txirikorda eraikitzen hasten direnean. 2 milioi euroko inbertsioa da. Saio berean, 2020ko Kontu Orokorra gehiengo osoz onartu zuten, EHBildu eta PSE-ren babesarekin. EAJ abstentitu zen.

Erantzukizun maila handiagoa izango du Udalak herriko ur-horniketa sisteman

Aurrerantzean; sistema osoaren kontrol eta zaintza ardura Udalarena izango da, nahiz “zeregin eta betebeharraldetik berdin segiko dugu” zioten udal gobernu taldetik uztailaren 20ko udalbatzarrean. Uraren analitikak Añarbek egiten segiko du. Urtero gainera barne auditorioa bat egingo zaio Udalari. Orain arte, ur-horniketaren zati bat, Udalaren zaintzapean zen,

bestea Añarbe Mankomunitatearen ardurapean. Egoera hau aldatuko duen 8 urterako “Udal titulartasuneko hornidura-sistemen kontrol eta zaintza unitate berriari laguntzeko jarduerak egiteko kudeaketa agindurako hitzarmena” sinatzea onartu zuten Añarbekin aipatu osoko bilkuran gehiengo osoz, EHBildu eta PSE-ren babesarekin. EAJ abstentitu zen.

Erroizpetik gehiago edateko erronka

Erroizpe presako urarekin herriaren %80a hornitzeko erronka du udal gobernu taldeak. Horretarako ordea presan filtrazio sistema berri bat ezartzea beharrezkoa da. “Proiektua eginda dago, ahalik eta azkarren” heldu nahi diote gaiari, udal gobernu taldetik uztailaren 20ko udalbatzarrean ziotenez.

Sagar bilketari ekin eta sariak irabazteko garaia

U surbilgo eta Euskal Herri osoko sagardogileak hasi dira sagastietan sagar bilketarako dena prestatzen: “Sagarrik puntu ederra hartzen ari dira, eta lehengo urteko sagardoaren oso antzekoa espero da aurtengo ere”, jakinarazi dute Euskal Sagardoa Jatorri Deitura egitasmoaren sustatzaileak.

Iazko sagardoak baino 0,5 alkohol gradu gutxiago izateko itxura du, eta sagar mota gehienek asko eman dute. Oraindik datu zehatzak emateko goizegi bada ere, bost milioi kilo baino gehiago biltzea aurreikusi dute Euskal Sagardora bideratutako sagastietan.

Sariak kontsumitzaileentzat
Euskal Sagardoa indartzeko, promozio kanpaina bat jarriko dute martxan asteburu honetatik, irailaren 18tik aurrera Gipuzkoako Ostalaritza elkarteak eta Sagardoa Routek. Kontsumitzaileen artean sariak banatuko dituzte Euskal Sagardoa edaten dutenen artean. 250 sagargile daude



Sagar bilketa garai honetan, kontsumitzaileek sariak irabazteko aukera dute, Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren sustatzaileen esanetan.

EUSKAL SAGARDOA

“Euskal Sagardoa indartzeko, promozio kanpaina bat jarriko dute martxan asteburu honetatik aurrera”

Euskal Sagardoaren barnean, 48 sagardotegitan banatuta: Saizar, Araeta eta Urdaira tarteko. Sektorea profesionalizatzen jarraitzen du Euskal Sagardoak, eta helburu nagusitzat finkatu dute 15 urtean %100 bertako sagar hutsez egitea bertako sagar-

do guztia. Euskal Sagardoa zigilupean ekoiztu nahi dute sagardo guztia.

Sagarraren txokoa

Euskal Sagardoa Jatorri Deitura eta Fruitel elkartearekin elkarlanean Sagardoa Routek aukera berria garatu du sektorean sagarra oinarri hartuta eskolentzat. Urte osoko unitate didaktikoa da proposamena, urtaro bakoitza bere berezitasunekin. Aurrera begirako apustua osatu nahi du sektoreak, etxeko txikiak paisaia kulturala landu eta ulertu ahal izateko.

Udal diru-laguntza deialdiak martxan

■ Kirol arloko norgehiagoka erregimenetik kanpoko laguntza deialdia.

Kirol ekintza berezietarako, prestakuntza tekniko eta oinarritzko osasun miaketetarako edota Eskola Kiroleko kuoten ordainketarako laguntzak eskatzeko epea zabalik urriaren 30era arte.

■ “Hasiz Hazi” beka deialdia:

2021ean egitasmo bat duen ekintzaileari zuzendua. Kabiene elkarlan gunean urtebeteko egonaldia diruz laguntzen dion deialdia. Eskabideak aurkezteko epea zabalik irailaren 30era arte.

■ Merkataritza lokal hutsetan jarduera ekonomiko berri bat abiarazteko laguntza deialdia:

Hasierako gastuei nahiz alokairu edota erosketa gastuei aurre egiteko laguntzak. Eskabideak aurkezteko epea, irailaren 30era arte.

■ Eskabideak: udaletxean bertan, posta arruntez zein Internetez, zerbitzu digitalen webgunean.

OLH-ren eskumena, 2026ra arte

Oinarritzko Lanbide Heziketa eskaintzeko eskumena datozen bost ikasturteotan, 2026. urtera arte Usurbilgo Udalarri eskuordetzea onartu zuen udalbatzak aho batez, irailaren 7an. Jaurilaritza-tik “dekretu hau gaizki eta berandu kudeatu da”, zioten udal gobernu taldeak. Defizit egonez gero, horri Jaurilaritzak aurre egitea galdegiten dute udal gobernu taldeak. Baita inbertsioetarako diru-laguntza lerro bereziak sortu edota sare publikoko zerrendak eskuragarri jartzea ere, “kontratazioak eta ordezkapenak egiteko” eta sektore honetako langileek “sare publikoan dituzten baldintzak eskuratzeko”.

Gertu txartela erabilita, %10 merkeago erosketak Hurbilagoren saltokietan

Herrian bizi eta erosteko Hurbilagoren eskaintza berria, irailaren 30era arte. Gertu txartela erabilita, erosketak %10 merkeago Usurbilgo merkataria eta ostalarien elkarteak kide diren saltokietan. Janari, liburu edota arropa dendak, ostalaritza guneak, zaintza eta osasun arlokoak... dituzue aukeran. “Erosketa bakoitzeko, gehienez 10 euroko deskontua lortu ahal izango da”, ohartarazi dute ekimenaren sustatzaileak. Informazio gehiago, gertuago.eus atarian.



Hurbilago elkarteak kide diren saltokietako langileak, hilabete amaierara arte indarrean izango den eskaintza aurkezten.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

2 logela edo gehiagoko etxe bat alokatu nahiko nuke. Usurbildarra naiz eta berehala sartzeko litzateke. 641562917.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Zerbitzari euskalduna behar dugu Olarrondo jatetxean asietatik ostiralera, eguerdiatarako soilik. 626 686 036

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea.

638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

DBH4ko ikasle batek ingeleseko klase partikularrak jasotzeko irakasle usurbildar bila. 608 201 745

Pertsona helduak, garbiketak, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta onradua, garbiketa lan eta adinekoren zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisiez@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

BESTELAKOAK

Katakumeak opari. Bakarra gertzen zait, arra, 3 hilabete ditu. Galdetu Izar Etxen, Udarregi parran, edo deitu 635709267 (Iker).

Frantseseko klaseak jasotzeko irakasle bila nabil. 652 725 022.

Lepoko marroldun txakurkume eme marroi bat aurkitu dugu Olarrondo kalean. 685473499

Ukelelea jotzen ikasi nahi nuke. Taldean edo banaka aritzeko arazorik ez. Irakasleko moduan bazara deitu 606330556 telefono zenbakira.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

**Zorionak Izaro!!!**

Oso ondo pasa zure 11.

urtebetetzean!!!

Muxu potolo bat familiaren partez.

**Zorionak Luken!!!**

Zure 4 urteak ospatuko ditugu.

Muxu potoloak Nora,

aita eta amaren partetik.

**Zorionak Maddi eta Manex!!!**

Gure etxeko txikiak abuztuaren 25ean 4 urte bete zituen. Ze ondo pasa gure nuen!! Urriaren 2an gure printzesak 7 urte beteko ditu. Muxu haundia familiaren partez.

Goardiako farmaziak

Osteguna 16 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 17 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 19 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 20 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 21 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 22 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Osteguna 23 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 24 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 25 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 26 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda iraila

17 ostirala

- **Santuenea Kultur Biran.** 18:00 Toka eta igel txapelketa, eta plisti-plasta ur jolasak. 22:00 Kontzertuak: Neona eta Vifara.

18 larunbata

- **"Izan zinetelako gara" ekitaldia.** 18:00ean Usurbilgo frontoian.
- **Santuenea Kultur Biran.** 11:30-13:30/16:30-19:30 Puzgarriak. 11:30-13:30 Bizikleta slaloma eta arku jaurtiketa. 16:00 Mus txapelketa. 22:00 Traka.

19 igandea

- **Enrique Abril Errebote Txapelketa.** 11:00etan Zubietako errebote plazan.
- **Santuenea Kultur Biran.** 09:00 Esnadeia. 12:00 Pala txapelketako finala.

Santuenea ere Kultur Biran murgilduko da asteburuan

O hiko jairik ezin ospatu, baina Santueneko Jai Batzordeak ere bat egin du egungo testuinguru- ra egokitutako Kultur Birarekin. Berez festena litzatekeen asteburu honetarako ekitaldi zikloa iragarri dute. Adi, zenbait hitzorduetarako izena aurrez bideratu beharko baita usurbilkultura.eus atarian.

Irailak 17, ostirala

- 18:00 Toka eta igel txapelketa. Izen ematea, Zaharren Egoitza aurrean.
- 18:00 Plisti-plasta ur jolasak.
- 22:00 Kontzertuak: Neona eta Vifara.

Irailak 18, larunbata

- 11:30-13:30/16:30-19:30 Puzgarriak.
- 11:30-13:30 Bizikleta slaloma eta arku jaurtiketa.
- 16:00 Mus txapelketa.
- Izen ematea, 15:30-16:00 artean, bikote-ko 20 euro.
- Sariak:
 1. saria: bi txapel, bi trofeo, bi marisko lote, onddo otar bat eta bi botila txanpain.
 2. saria: bi trofeo, zortzi txuleta, bi gazta eta bi botila txanpain.
 3. saria: lau txuleta eta bi botila txanpain.
 4. saria: baserriko bi oilasko eta bi botila txanpain.



Jolasak, musika, txapelketak edota traka, Santueneko Kultur Biran.

- 22:00 Traka, DJ Gorkamendik girotua.

Irailak 19, igandea

- 9:00 Esnadeia.
- 12:00 Pala txapelketako finala:
 - Kanporaketak irailaren 13tik 17ra arratsaldeetan.
 - Araudia:
 1. Teniseko pilota edo antzekoa anto- lakuntzak jarriko du. Pala norberak.
 2. 16 urtetik gorakoek parte hartu de- zakete.
 3. Bikoteak genero berekoak izan dai- tezke edo ez.
 4. Bikote finalistentzat sariak egongo dira.
 - Izen ematea: itxita.
- Ekitaldietarako izen ematea: usurbilkul- tura.eus plataforman.

Datozenak

Enrique Abril Errebote Txapelketako neurketa

3. jardunaldiko partidetak bat Zubie- tan jokatu da:

- Irailak 19, igandea
- 11:00 Zaharrer Segi-Zubiet

Azken ostirala

Euskal presoen eskubideen aldeko Sareren mobilizazioa irailaren 24an, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

"Miñan" eskuragarri, urriko aurkezpena begira

Urriaren 20an "Miñan" liburua, bere egile Amets Arzallusen eskutik aur- kezteko saioa antolatu du Sutegi udal liburutegiak. Hitzordura begira, "li- buruaren ale mordoxka bat daukagu zuentzat, saioaren aurretik maileguan hartu eta irakurri ahal izateko".

Futbol Eskola prestatzen

Usurbil F.T.-tik ohartarazi dutenez, ira- laren 28 eta 29an eman ahalko da ize- na Futbol Eskolan, 18:30-19:30 artean Haranen. Aurrez, guraso bilera deitu dute, irailaren 22an Haranen baita; 18:00etan, 2013 eta 2012an jaiotakoen gurasoei zuzendua, 18:30etan 2011-10 artean jaiotakoen ama eta aitentzat. Urriaren 8an lehen entrenamendua.

Antxi
bazarriak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• karta • oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44



“Bo...

kakingarria!”

Zu ere harrituko zara, edo ez.
Poztu, edo haserretu. Baina ziur
baduzula interesa eta zeresana.
Jakin-mina eta irizpidea duzulako.
Giroan zabiltzalako.

berria

zuk badakizulako

ZOZKETA

Patinete elektrikoa

Xiaomi MI Electric Scooter 1S EU



Nola parte hartu:

Deskargatu Urbilgo doako aplikazioa eta aktibatu zozketaren kupoia: **PATINETE ELEKTRIKOA**

Zozketaren oinarriak eta irabazlea (2021/09/22) www.urbil.es/eu